

Zure klaseko bat ikasketak utzi eta lanean hasi da

IOAR TAINTA NOBLE

DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria

Berako Toki Ona BHI

«Nazkatua nago teknologia kimika eta gizarte.»

Hauxa esan dit nire lagunak papertxoaren bitartean.

Mundu honetan ikasi gabe daudenez pilaka gazte

aprobetxatu zure aukera

borroka zazu jo ta ke

dantzatu gogoz zure lapitza

ikasgaia jakin arte

eta lanean hasteko ideia

utzi ezazu aparte.

Nahiz eta ez duzun eskola edo

hango libururik maite

kontutan hartu ume txiroek

libururik ez daukate.

Nik ulertzen dut zer den egotea

azterketaz jada lepo

orduak sartuz gela barruan

nekea dela tarteko.

Baina pentsatzen jartzen bazara

ez zara bizi perfekto?

Dudarik gabe zu bizi zara
txiroak baino hobeto.
Zure aukerak kakaztuz zabiltz
harro-harro, peto-peto.
Gazte bizitza barru-barruan
zuk duzularik menpeko
Afrika hartu adibidetzat
herria da analfabeto
Ikasi ezazu behar dutenei
idazten erakusteko.

Ez izan haurra, bizitza ez da
inolako jostaketa
zaila da zinez mantentzea berdin
gizartearen oreka.
Erabakia behin hartu eta
ez dago atzera buelta
horregatikan ongi pentsatu
zein den benetako meta.
Afrika berriz gogoan daukat
amorrazioz beteta
ikasi nahia eta ezina
barruan dute gordeta
horregatikan zuk liburuei
lagun ez egin iseka
segi ikasten bizitza honek
aukera eman dizu-eta.